



Basaburuko Udala
31866-Jauntsarats

Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuan pediatria behar dugu.

Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremua, Anue, Lantz, Odieta, Basaburua eta Ultzamako Udalek osatzen dute, 4000 biztanleko biztanleria du eta despopulatze arriskuan dago.

Oinarrizko zerbitzuen artean, ezinbestekoa da gure osasuna zaindua izatea. Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuan bertan, artatuak izateko eskubidea bermatu behar dugu. Hortaz, Osasun-Zentroak, behar diren profesionalak izan behar ditu uneoro. Hala ere, zerbitzu honetan ditugun gabeziak nabarmenak dira. Batez ere, Pediatria postuaren ezegonkortasuna. Egoera horrek segurtasun falta izugarria sortzen du, ez baitakigu noiz egongo den Pediatria eta noiz ez. Ekainaren 20az geroztik, Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuan, ez daukagu Pediatria Zerbitzurik, eta horrek hutsune eta arazo ikaragarria sortzen digu. Iruñeraino joan behar horrek dakartzan eragozpen eta zailtasun guztiekin.

Kontuan izan behar da Oinarrizko Osasun Eremu honetan 0-14 urte bitarteko 400 haur bizi direla. Egoera honen ondorioz, haur eta gazte hauen oinarrizko eskubide unibertsala, osasun zaintza, erabat urratua da.

Arrazoi hauengatik, Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuko gurasoen kezkekin guztiz bat gatoz.

Hau guztia kontuan hartuta, eta arazoa aspalditik maiz errepikatzen dela ikusita, Basaburuko Udalak

ERABAKI DU:

1.- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari eskatzea beharrezko baliabide guztiak jar ditzala Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuko Pediatria Zerbitzua ahalik eta lasterren martxan egon dadin, une honetan sortutako hutsunea betez.

2.- Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuari egoera hori behin betiko ebazteko eskatzea, Ultzamako Oinarrizko Osasun Eremuko Pediatria lanpostua eta zerbitzua egonkortuz eta bermatuz.